

## TOPONIMIA DE VITORIA V / GASTEIZKO TOPONIMIA V. ARRATZUA I

Egun hemen aurkezten dugun liburua Euskaltzaindia Gasteizko Udalaren laguntzarekin burutzen ari den *Gasteizko toponimia* egitasmoaren azken emaitza da, aurretik argia ikusi zuten *Toponimia de Vitoria I / Gasteizko toponimia I. Ciudad / Hiria* (OV 27, 2009), *Toponimia de Vitoria II / Gasteizko Toponimia II. Malizaeza* (OV 28, 2009), *Toponimia de Vitoria III / Gasteizko Toponimia III. Ubarrundia de Vitoria / Gasteizko Ubarrundia* (OV 29, 2010) eta *Toponimia de Vitoria IV / Gasteizko Toponimia IV. Langraiz* (OV 30, 2013) lanen ondotik datorrena.

Gaur bosgarren liburukia aurkezten dugu, *Toponimia de Vitoria V / Gasteizko Toponimia V. Arratzua I* (OV 31, 2015) deritzana. *Arratzua*-ren gibelean ageri den *I* horren arrazoia antzinako *Arratzua* merindadea berez zabalegia (hogeita bat herri) izatea da, ezin baitira herri horiek guztiak liburuki bakar batean sartu. Honek erran nahi du, bistan da, seigarren eta zapigarren liburukiak ere, noizbait, eginen eta argitaratuko direla. Oraingoan, dena dela, Arkaia, Arkauti, Betoñu, Elorriaga, Gamiz eta Otazuko leku izenak aurkeztu eta aztertzen dira.

Gauzatutako ikerketa lana zuzena da nire ustean: leku izenen arautze eta normalizatzeko egokirako ezinbestekoa den alderdiko dokumentazioaren azterketa sakona dago lehenik. Izan ere, toki izen horietako franko, Euskal Herriko beste eremu batzuetan gertatu den bezala, itxuratxartu egin dira. Toponimoen bilakaera,

denborarekin izenak bestelakotuz joatea, gauza normala da eta ontzat hartzekoa, ardua toki izenen oinarrian den hitzaren edo hitzen motibazioa lekutzen delako. Hizkuntza aldaketaren ondorioz, ordea, euskaldun batendako gardenak diren izenak (*baso* eta *larre* edo *larra*, demagun) euskaraz ez dakitenendako erabat ilunak ohi dira. Jatorrizko hizkuntza desagertzen denean, beraz, toponimoak «galgarik gabeko desitxuratze prozesuan» barna abiatzen direla erran dezakegu.

Agirien azterketa sakona ez ezik, egileak guregana bizirik iraun duten izenak ere jaso ditu. Eta «bizirik iraun» diot toponimo batzuk hil eta beste batzuk sortzea gauza berezkoa izanik ere, hizkuntza aldaketak, lur biltzeak eta lurrari hain atxikia ez den egungo bizimoduak ondoriotzat agirietako izenetarik jendearen gogoan eta mihian ehuneko hamahiru bat besterik ez izatea ekarri dutelako.

Buruenik, lanean erabilitako metodologiaren gainbegiradari etsia emateko, diodan leku izen biziak, erabiltzen direnak alegia, mapetan kokatu direla, toponimia metodologiak eskatzen duen eran. Gainera, toki izenak aiseki topatzeko aurkibideak sartu ditu egileak, herriz herrikoak lehenik eta orokorra ondotik, bai eta ere «hitz nagusi» zerrenda bat, non hitz interesgarri anitzez lekora atzizkiak azaltzen diren orrialdeak ere eman baitira.

Gasteizerriko ondare materiagabearen berreskuratze, arautze eta aztertze lan hau nahitaezkoa, baitezpadakoa da ondoko belaunaldiei gure arbasoek eta aitona-amonek erabiltzen zituzten toponimoak helarazteko, zinez kultura altxor preziogabea osatzen

baitute. Aintzat har bedi, gainera, aztertutako herriak hiriburutik biziki hurbil daudela, eta horregatik ere komeni dela toponimoak zuzen emanik egotea, hurbiltasunak industriagune eta mota guztietako instalazioak sorrarazten dituelako eta, bistan da, horiek ongi ipinitako izena izan behar dute, kokatuta dauden lekuarena, adibidez.

Bestalde, eta laugarren liburukiaren aurkezpenean nioenez, Gasteiz garrantzi handiko lekua da euskararendako: dialektologialari batzuen arabera, hemengo euskarak eman die sorrera Bizkaiko eta Gipuzkoa-Nafarroetako alderdi bateko hizkerari. Gure arazoa da testuak ez ditugula soberakin, Perez Lazarragakoarenak aurkitzeak hemengo hizkeren inguruko gure ezagutza handitu badu ere. Landuchiorenak, Gamizenak eta besterenak lehendik ezagutzen genituen.

Testuak gutxi direnean zer egin dezakegu inguru hauetako euskara galduaren berri jakin nahi badugu? Erantzuna bistakoa da: hemengo gaztelanian erabiltzen diren euskal hitzak bildu eta, batez ere, toponimia aztertu. Adibidez, toponimoetan hainbat herriren izenen euskarazko forma aurkitzen dugu. Zenbait aldiz erdaraz ibiltzen den bera da, baina beste batzuetan ez, bien arteko aldea ttikia ohi bada ere: *Aberasturi* (*Aberasturibidea*, *Aberasturilarrea*), *Arkaia* (*Arkaiabea*, *Arkaiabera bidea*, *Arkaiabidea*, *Arkaiabarra*, *Arkaiamendi*, *Arkaiaostea*, *Arkaiara bidea*, *Arkaiarte*, *Arkaiatea*), *Arkauti* (*Arkautiuraldea*, *Arkautiko uraldea*, *Arkautira bidea*), *Askartza* (*Askartzabidea*, *Askartzara bidea*), *Betoñu* (*Betoñusoloa*), *Betrikiz* (*Betrikizbidea*, *Betrikizotsalarrina*; *Petrikiz* herrixka hustua

da), *Bitoria* (*Bitoriabidea*, *Bitoriara bidea*), *Bolibar* (*Bolibarraldea*), *Dura* (*Durabidea* edo *Durara bidea*, *Duragana*, *Durazarra* edo *Duranzarra*), *Gamiz* (*Gamizarri* < *Gamizsarri*), *Otazu* (*Otazubidea*, *Otazuibarra*, *Otazuko errotaldea*, *Otazuko uraldea*, *Otazularra*), *Sarikuri* (herrixka hustua da; *Sarikurimaduraokelua*, *Sarikuriostea*), *Urbina* (*Urbilagana*, *Urbinaldea*), *Zerio* (*Zeriobide*), *Zurbao* (*Zurbaobidea*, *Zurbaura bidea*).

Aurkezpen hau baliatu nahi dut onomastikarekin zerikusi handirik ez duen irakasle batek Arabako liburu argitaratu berriari erreferentzia eginez aipatzen duen nire «ase ezinezko antroponimofagia»-k oinarri zerbait baduela nabarmentzeko, nire liburu horretan ematen ditudanez landara: Betoñun komunzki *Andura* izendatzen dena behin *Andurana* gisa ageri da, eta Gamarran *Andurana aldea* lekukotzen da. Garbi dago, beraz, antroponimo baten aitzinean garela, oraingoan ere, nik proposatu bezala. Baina alferrik izanen da segur aski; badakizue, «gorrik handiena aditu nahi ez duena».

Arratzuko euskaran ohikoak bide ziren zenbait izen interesgarriak dira, besteak beste horietakoren bat *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ere biltzen ez delako. Hori da, demagun, *Adobetegia*-ren kasua, Elenak dioenez "adobeak egiten ziren lekua" izendatzen zuena, etorkiz. Egia da, egun eta hemen, adobeak ez direla eraikuntzan erabiltzen, baina egoera bestelakoa zen orain hamarkada batzuk, ez hain aspaldi.

Beste izen aipagarri batzuk ondoko hauek dira: *amandre* 'amona' eta 'ama birjina', *arbina* 'bide ertxia', *borin* (elkarketako beste aldaera batzuk ere badira) eta *errota*, *elexa* 'eliza' (*Elexaurreko basatxoa*), *elexar* 'lizarra', *erpide* (*Erpidea*) 'errepidea', *erramu*; *erratura* eta *lanbarri* 'labakia', 'luberria'; *errexal* 'zuhaitza'; *etse* eta *etxe*; *exidu* edo *ixidu* 'herri ondoko eremu amankomuna', *harkatx* 'harkaitza', *harmora* 'harri mukurua'; *ibai* (eta *Uribai*), *inkazkin* 'ikazkina' (oinarria XVI. gizaldirako Landuchiorenean ageri den *inkatz* 'ikatz' da), *intsagur* 'intxaurrondoa', *isasi* (*itsioa*-ren adierakidea, beste alderdi batzuetako *debekua* edo *betatua*, Arabako gaztelaniako *coteado* bera); *karobi* 'galtzina labea', *laku* eta *madura*, *padura* 'leku urtsua', *larrin* 'larraina', *mandazai(n)*; *okelu* 'okoilua', 'zokoa'; *pozu* 'putzua' (*cfr. mutio* eta *osin, oxin*), *sarri* 'baso mota bat', *solo* 'alorra', *txirpia* 'zuhaitz landarea', *zidor*; *zulgo*, *zulgu* eta *zurgu* 'alorren arteko muga'-edo.

Aipamen berezia merezi du *uraldea* (*Arkautiko uraldea*, *Beheko uraldea*, *Behengo uralde*, *Otazuko uraldea* edo *Otazuraldea*, *Uraldea*) terminoak. Honek ubideen ondoko eremuak izendatzen bide zituen, Iruñerrian ohikoa zen (eta Arratzuan ere behin edo beste ageri den) *errekaldea*-k adierazten zuen gauza bera edo bertsua. Halaber, arreta berezia eman behar zaio hemen errepikatzen den *Berentxina* toponimoari, egilearen irudiz erreken eta azekien aldameneko lekuak adierazten zituenari. Antzinako izen arrunt egun galdua izanen da segur aski. *Itsioa* 'debekua, betatua' ere interesgarria da, *itsi* 'itxi, hetsi'-rekin lotua dagokeelako eta bukaeran gradu hurbileko artikulua ez den -o dukeelako. Putzu mota bat izendatzen duen *Mutioa* Araban eta Nafarroan errepikatzen da

(Obanosen gazkuntzeetako putzua da), eta nabarmentzekoa da beraz.

Done Eztebe ermitaren aldamenean den *Estefaldea* antrotoponimoa ere interesgarria da, *b*-ren ordainez duen *f* horrengatik, bestetako *zufia* 'zubia'-n dugun bera, oraingoan ezpain-horzkari ahoskabea etimologikoa izan baliteke ere. *Foruaga*, bestalde, aipatzeko moduko toponimoa da, duen *foru* 'forua' oinarri ezohikoagatik, Bizkaiko *Forua* herri izenean dagoen beragatik.

Bukaerei dagokienez, Langraizen bezala, *-duia* atzizki multzokaria duten leku izenak dauzkagu (*Arduia*, *Elorduia*, *Gardidua*, *Kaparradua*, *Sagardua*, *Sagastua*, *Zumadua*), *-tzaia* dutenak (*Asturatzia* [*astura* 'mihura' da], *Buztintzia* [eta *Buztintza*], *Linatzia*, *Loitzia*, *Mimentzia*). Bestalde, *-eta* leku-ugaritasunezko atzizki ezaguna gehienetan *-etea* da (*Aranetea*, *Aretxetea*, *Etsaurretea* eta *Etxaurretea*, *Larrinetea* [baita *Larrineta* ere], *Untsaurretea*), baina ez beti (*Astasoloeta*, *Basotxoeta*). Antzeko beste atzizki bat, *-zu*, aldaera duen *-tsu*-rekin aldizkatzen da *Artsua* toponimoan, baina gehienetan *-tsu* dago *Artsuondoa*-n.

Deigarria da, bestalde, *-txo* (*-txu*) atzizki txikigarriaren ugaritasuna: *Areatxoa*, *Basatxoa* (*Basotxoeta*, *Basotxostea*), *Dermautxoa* (*dermau* 'dermioa' da), *Elexaurreko basatxoa*, *Errekatxoa*, *Iturritxo(a)*, *Landatxo*, *Larratxo*, *Menditxo(a)*, *Musako zubitxo*, *Ormatxua*, *Ortutxo*, *Paduratxo*, *Perratxo* (*perra* etxetik hurbil dagoen alor hetsia ohi da), *Sarritxu*, *Zubitxo(a)* edo *Zubitxu*. Atzizkiaren ordainez, zenbaitetan, *gutxi* 'txikia' izenondoa agertzen

da (*Basagutxi, Iturgutxi, Maduragutxi*), edo adiera bereko *txipi* adjektiboa (*Basotxipi, Errekaxipi*). Ikus daitekeen bezala, batzuetan *-txu* azaltzen da, ez *-txo*.

Gauden alderdi honetan ez da miresteko *ostea* bezalako postposizioak agertzea (*Armoraostea, Basostea, Borinostea, Elexostea, Errotaostea, Mendiostea, Otamendiostea...*), azken batean aski sartaldean gaudelako. Beste horrenbeste gertatzen da *gana* 'gaina'-rekin, agiriren batean *gaña*-rekiko lehian azaltzen zaigun arren. Bestalde, Langraizen ez bezala, hemen *bitarte* 'tarteko eremua' dago (*Bidabitarte, Errekabitarte* [eta *Errekarte*], *Mendibitarte*), ez *biarte*.

Puntu honetan ohartzekoa da *goi*-ren erabilera (*Barratxigoia, Maduragoia* [baita *Maduragoikoa* eta *Maduragoitia* ere], *Paduragoia, Arkatxagoizubia*), eratorri duen *goiena*-ren orde-edo edireten duguna. *Goiburua*, ildo beretik, mendi baten izena da. Bestalde, *bular* dugu, ez *burar, Lakubularra* eta *Perrabularra* toponimoetan.

Kasuren batean leku izena benetako deskribapen trinkotua da: *Perusantxosoloaokelua* (Arkauti), hau da, 'Peru Santxoren soroko, alorreko zokoa'.

Espero izatekoak ziren alderdi honetan ugariak diren *-a + -a > -ea* disimilazioak, ezin ahantz daitezkeenak, hemengo hizkera galdua deskribatzeko duten garrantziagatik: *Arantzea, Armorea, Basalanda; Beheko landea* eta *Behengo landea* (*Beheko landa, Behengo landa* ere bai); *Berdurea, Erraturea, Eskal(l)erea,*

*Garrastea* ([*Garrasta*] 'basa zuhaitza' nonbait), *Kaltzadea*, *Madurea* (eta *Madura*), *Padurea*, *Salzadea*, *Txorrotea*. Bukaeran -etea dutenak (ikus gorago) eta -agea duen toponimo pareak ere (*Oxinagea*, *Zer(a)magea*) hemen sartzen dira.

Bukatzeko erran nahi dut egun aurkezten dugun lanaren beste indargune bat egileak aurreko liburukietan proposatu forma arautuetako bat edo beste zuzentzeko egin duen ahalegina dela (*Iramendi* → *Airamendi*, argibidez). Hau toponimia txikian agitzea normala da, eta nagusian ere bai, gure artean toponimia ikerketa «serioa» trantsizioarekin hasi zela erran baitaiteke, eta honelako lan asko behar baitira gure toki izenak egokiro arauturik egon daitezzen.

Esker mila zuen arretagatik,

*Patxi Salaberri*

*Gasteizen, 2015eko martxoaren 10ean*

---

*TOPONIMIA DE VITORIA V / GASTEIZKO TOPONIMIA V.  
ARRATZUA I*

La obra que presentamos hoy es el último fruto (por ahora) del proyecto que la Academia de la Lengua Vasca está desarrollando con el Ayuntamiento de esta ciudad. Dicho proyecto se denomina *Gasteizko toponimia* o *Toponimia de Vitoria* y hasta el presente ha



tenido como resultado la publicación de los siguientes tomos: *Toponimia de Vitoria I / Gasteizko toponimia I. Ciudad/Hiria* (OV 27, 2009), *Toponimia de Vitoria II / Gasteizko Toponimia II. Malizaeza* (OV 28, 2009), *Toponimia de Vitoria III / Gasteizko Toponimia III. Ubarrundia de Vitoria / Gasteizko Ubarrundia* (OV 29, 2010), *Toponimia de Vitoria IV / Gasteizko Toponimia IV. Langraiz* (OV 30, 2013).

Hoy presentamos el quinto tomo denominado *Toponimia de Vitoria V / Gasteizko Toponimia V. Arratzua I* (OV 31, 2015) en el que se recogen y analizan los topónimos de Arkaia, Arkauti, Betoñu, Elorriaga, Gamiz y Otazu. El número uno que sigue a *Arratzua*, como dice la autora en la introducción de la obra, se debe a que la antigua merindad de Arratzua es demasiado amplia (21 pueblos) para que todas las localidades puedan ser incluidas en un único tomo. Esto quiere decir, claro está, que tendrá que haber un sexto y un séptimo volumen dedicados a la toponimia de dicha merindad.

El trabajo de investigación realizado es en mi opinión correcto: hay un estudio profundo de la documentación de la zona, fundamental para la normativización y posterior normalización de los topónimos, dado que, debido a la pérdida del euskera, muchos de los nombres de lugar, al igual que ocurre en otras zonas de Vasconia, se han deformado en mayor o menor medida. La evolución de los topónimos en sí es normal, ya que en gran parte se pierde la motivación que les dio origen, pero el cambio de lengua hace que nombres transparentes para un euskaldún (por ejemplo *baso* 'bosque' y *larre* o *larra* 'prado') sean opacos para el que no

habla la lengua y, como consecuencia, los topónimos entran en lo que podríamos denominar "caída libre" de la deformación.

Además del estudio profundo de la documentación la autora de la obra ha recogido las formas vivas de los topónimos que han sobrevivido. Y digo sobrevivido porque es natural que algunos nombres se pierdan y otros se creen, pero en este caso también el mencionado cambio de lengua, la concentración parcelaria y el diferente modo de vida no tan apegado a la tierra como antaño han hecho que de los nombres que se documentan sólo un puñado (aproximadamente el 13%) sean recordados y utilizados en la actualidad.

Por último, y para terminar con el repaso de la metodología empleada, los topónimos vivos han sido plasmados en el mapa correspondiente, tal como exige la metodología toponímica. Además, para que los diversos topónimos puedan ser localizados fácilmente, la autora ha incluido los índices individuales, por localidades, y el general que comprende todos los topónimos, e igualmente una lista de «voces mayores» en la que además de muchos términos interesantes también aparecen los sufijos presentes en los nombres de lugar.

Todo este trabajo de recuperación, normativización y estudio del patrimonio inmaterial vitoriano es fundamental para poder transmitir a las generaciones venideras el tesoro cultural que suponen los topónimos creados y empleados por nuestros abuelos y antepasados. Además, las localidades estudiadas están muy

próximas a la capital, y conviene que los topónimos estén escritos correctamente, dado que dicha proximidad hace que se creen polígonos industriales e instalaciones de todo tipo a las que es necesario dar, en mi opinión, un nombre adecuado, el del nombre debidamente normativizado del lugar en que están enclavados.

Como señalaba en la presentación del tomo cuarto, Vitoria-Gasteiz es un lugar importante para el euskera: según algunos dialectólogos es el euskera de la capital alavesa el que ha marcado el carácter occidental de las hablas de Bizkaia, y parte de las de Gipuzkoa y Navarra. El problema que tenemos es que los textos no nos sobran, si bien descubrimientos como el de la obra de Perez de Lazarraga han ayudado mucho al mejor conocimiento de las hablas vascas de la región. Otros textos (Landuchio, las poesías de Gamiz de Sabando, etc.) eran conocidos con anterioridad.

Pero como he dicho los textos escasean, y debemos recurrir al léxico residual y sobre todo a la toponimia para saber algo del habla perdida de las diferentes localidades. Por ejemplo, en los nombres de lugar encontramos a menudo la versión vasca de bastantes topónimos, que no nos ha llegado por otra vía. En muchos ocasiones no hay diferencia, pero otras sí que la hay, aunque en general es pequeña: *Aberasturi* (*Aberasturibidea*, *Aberasturilarrea*), *Arkaia* (*Arkaiabea*, *Arkaiabera bidea*, *Arkaiabidea*, *Arkaiabarra*, *Arkaiamendi*, *Arkaiastea*, *Arkaiara bidea*, *Arkaiarte*, *Arkiatea*), *Arkauti* (*Arkautiuraldea*, *Arkautiko uraldea*, *Arkautira bidea*), *Askartza* (*Askartzabidea*, *Askartzara bidea*), *Betoñu* (*Betoñusoloa*), *Betrikiz* (despoblado de *Petrikiz*; *Betrikizbidea*, *Betrikizotsalarrina*),

*Bitoria* (*Bitoriabidea*, *Bitoriara bidea*), *Dura* (*Durabidea* o *Durara bidea*, *Duragana*, *Durazarra* o *Duranzarra*), *Otazu* (*Otazubidea*, *Otazuibarra*, *Otazuko uraldea*), *Sarrikuri* (despoblado; *Sarrikurimaduraokelua*, *Sarrikuriostea*), *Urbina* (*Urbinaldea*), *Zerio* (*Zeribide*), *Zurbao* (*Zurbaura bidea*).

Quiero aprovechar la ocasión para subrayar que mi «insaciable antroponimofagia» como algún autor (no onomasta, dicho sea de paso) la ha definido, haciendo referencia a una reciente obra mía, tiene alguna razón de ser, además de las que se dan en dicha obra: *Andura*, topónimo que se repite en la zona de estudio, se documenta en una ocasión como *Andurana* en Betoño, y como *Andurana aldea* en Gamarra, por lo que su origen antroponímico queda bastante claro. Pero como se suele decir, «no hay peor sordo que el que no quiere oír».

También términos habituales en el desaparecido euskera de la zona son interesantes, entre otras cosas porque alguno de ellos no se recoge ni en los dieciséis tomos del llamado *Diccionario General Vasco*. Por ejemplo, *Adobetegi* de Arkaia, como dice Elena, es la 'adobería', el lugar donde se fabricaban los adobes, material de construcción extraño en la actualidad por estos lares, pero empleado todavía no hace mucho.

Otros términos interesantes son: *amandre* 'abuela' y 'virgen', *arbina* 'camino o paso estrecho', *borin* (con diversas variantes en composición) y *errot*, *elexa* (*Elexaurreko basatxo*), *elexar* 'fresno', *erpide* (*Erpidea*) 'camino', *erramu* 'laurel', *erratura* y *lanbarri* 'rotura',

*errexal* 'árbol', *etse* y *etxe* 'casa', *exidu* o *ixidu* 'ejido', *harkatx* 'peña', *harmora* 'morcuero', *ibai* (y *Uribaia*); *inkazkin* 'carbonero', basado en la variante *inkatz* 'ikatzá, carbón' presente ya en Landuchio; *intsagur* 'nogal'; *isasi* equivalente a *itsio*, sinónimo del alavesismo castellano *coteado*; *karobi* 'calera', *laku* y *madura*, *padura* 'lugar aguanoso', *larrin* 'era', *mandazai(n)* 'arriero', *okelu* 'rincón', *pozu* 'pozo' (cfr. *mutio* y *osin*, *oxin*), *sarri* 'espesura', *solo* 'pieza, labrantío', *txirpia* 'planta de árbol'; *zidor* 'sendero', 'alcorce'; *zulgo*, *zulgu*, *zurgu* 'límite, lindero'.

Mención especial requiere el término *uraldea* (*Arkautiko uraldea*, *Beheko uraldea*, *Behengo uralde*, *Otazuko uraldea* o *Otazuraldea*, *Uraldea*) que parece denominar zonas pegantes a corrientes de agua, y nos trae a la memoria términos similares como *errekaldea*, frecuente en la toponimia de Iruñerria o Cuenca de Pamplona, y que también se documenta alguna vez en la zona de estudio. Se debe prestar atención, igualmente, al topónimo *Berentxina* que se repite aquí y designa, según la autora de la obra, lugares próximos a ríos y acequias. Se trata probablemente de un antiguo apelativo perdido en la actualidad. *Itsioa* 'vedado' es muy interesante por su probable relación con *itsi* 'itxi, cerrar' y por el final -o que no parece ser el artículo de grado próximo. *Mutioa* una clase de pozo, se repite en Álava y en Navarra (en Obanos es 'pozo de las salinas').

El antrotopónimo *Estefaldea*, que designa una zona situada junto a la ermita de San Esteban, es interesante porque presenta *f* en lugar de *b*, como ocurre en el bien conocido *zufia* por *zubia* (pero

*Ganeko zubia* aquí), si bien en el caso del antrotopónimo la labiodental sorda puede ser etimológica. *Foruaga* es digno de mención por la base *foru* 'foro', no muy habitual, que sepamos (pero *cfr. Forua*, en Bizkaia).

En cuanto a las terminaciones tenemos, como en Nanclares, los colectivos *-duia* (*Arduia, Elorduia, Gardidua, Kaparradua, Sagardua, Sagastua, Zumadua*), *-tzaia* (*Asturatzaia*, de *astura* 'muérdago'; *Buztintzaia* [y *Buztintza*], *Linatzaia, Loitzaia, Mimentzaia*). El conocido sufijo locativo-abundancial *-eta*, por su parte, aparece como tal (*Astasoloeta, Basotxoeta*), pero también como *-etea* (*Aranetea, Aretxetea, Etsaurretea* y *Etxaurretea, Larrinetea* [y *Larrineta*], *Untsaurretea*). Alternan, por otra parte, *-zu* y *-tsu* en el topónimo *Artsua*, pero sólo (o casi) tenemos *-tsu* en *Artsuondoa*.

Es llamativa la abundancia del diminutivo *-txo* (*-txu*) en topónimos como *Areatxoa* 'el arenalico', *Basatxoa* 'el bosquico', *Basotxoeta, Basotxostea, Dermautxoa* 'el terminico', *Elexaurreko basatxoa* 'el bosquecillo de delante de la iglesia', *Errekatxoa* 'el riachuelo', *Iturritxo(a)* 'la fuentecita', *Landatxo* 'la pequeña landa', *Larratxo* 'el pradillo', *Menditxo(a)* 'el montecito', *Musako zubitxo, Ormatxua* 'la paredita', *Ortutxo* 'el huertico', *Paduratxo* 'la pequeña padura', *Perratxo* 'el pequeño herrén', *Sarritxu* 'la espesurita', *Zubitxo(a)* o *Zubitxu*. Este sufijo en ocasiones es sustituido por el adjetivo *gutxi* 'pequeño', 'menor' (*Basagutxi* 'el bosquico', *Iturgutxi* 'la fuentica', *Maduragutxi* 'el pequeño terreno aguanoso') o por el

también adjetivo *txipi* del mismo significado (*Basotxipi, Errekatxipi*). En alguna ocasión, como puede verse, tenemos la variante *-txu*.

No es de extrañar que aquí aparezcan posposiciones como *ostea* 'la parte trasera' (*Armoraostea, Basostea, Borinostea, Elexostea, Errotaostea, Mendiostea, Otamendiostea...*), que refuerza la idea del carácter occidental del habla de la zona. Lo mismo ocurre con *gana* 'alto', 'parte alta' que en la documentación alterna en alguna ocasión con el central y oriental *gaña*, del mismo significado. Al contrario de lo que ocurría en Langraiz, aquí encontramos únicamente *bitarte* 'espacio intermedio' (*Bidabitarte, Errekabitarte* [y *Errekarte*], *Mendibitarte*), no *biarte*.

Llama la atención el empleo de *goi* (*Barratxigoia, Maduragoia* [también *Maduragoikoa* y *Maduragoitia*], *Paduragoia*, y también *Arkatxagoizubia*), en lugar de su derivado *goiena*. También hay *Goiburua*, nombre de un monte. Tenemos además *bular*, no *burar*, en *Lakubularra* y *Perrabularra*.

Hay, por otro lado, algún topónimo que es una verdadera descripción comprimida, por ejemplo *Perusantxosoloaokelua* de Arkauti, es decir, 'el rincón de la pieza de Peru Santxo'.

Los fenómenos de disimilación *-a + -a > -ea* son conocidos y esperados en esta zona, pero no por ello deben ser pasados por alto. Aquí tenemos, entre otros, *Arantzea, Armorea, Basalandea; Beheko landea* y *Behengo landea* (junto a *Beheko landa, Behengo landa*); *Berdurea, Erraturea, Eskal(l)erea, Garrastea* ([*Garrasta*]

'árbol bravío' al parecer), *Kaltzadea*, *Madurea* (y *Madura*), *Padurea*, *Salzadea*, *Txorrotea* y los ya mencionados nombres en *-etea*. Sólo hay un par de testimonios de *-agea*, sobre *-aga*: *Oxinagea* y *Zer(a)magea*.

Para terminar me gustaría señalar otra de las virtudes de la obra, y es que la autora, viendo los nuevos datos que van surgiendo, ha corregido alguna de las formas normativizadas propuestas en tomos anteriores (*Iramendi* → *Airamendi*, por ejemplo). Esto ocurre con la toponimia mayor y también con la menor, y es lógico que así sea, puesto que la investigación toponímica entre nosotros, de manera seria digamos, comenzó con la transición, y se requieren muchos trabajos del tipo del que hoy presentamos para que nuestros nombres de lugar estén normativizados de manera adecuada.

Esker mila zuen arretagatik,

-

*Patxi Salaberri*

*Gasteizen, 2015eko martxoaren 10ean*